

Kontuan hartuta Coronabirusak (COVID-19) sortutako pandemiaren ondorioz bizi dugun salbuespenezko egoera eta ikusirik martxoaren 14ko **463/2020 Dekretuaren** onarpenaren bidez deklaratu zen alarma egoera, aipatu birusak ekarritako osasun krisia kudeatzeko, eta aipatu dekretuaren arabera alarmaren azken luzapena 2020ko apirilaren 26ra arte iraungo duela eta balitekeela alarma egoera horren luzapen gehiago izatea.

Jakinik Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Kultura Sailak Zaballa auzoko jai-batzordearen idazki bat jaso duela, apirilaren 30 eta maiatzaren 1, 2 eta 3rako programatuta zeuden Zaballako 2020ko jaiak bertan behera geratzen direla aditzera emateko.

Udalak bere atsekabea erakusten du jaiak bertan behera utzi behar izateagatik, baina uste du lehenengoa dela herritarren ongizatea eta ziur dago etorriko direla garai hobeagoak trapagarandarrontzat hain bereziak diren jaiok ondo baino hobeto ospatzeko.

Amaitu baino lehen, eskertu nahi dizuegu une hauetan egiten duzuen ahalegina. Halaber, gogorarazi nahi dizuegu erakunde honek bat egiten duela [#nietxeangeratukonaiz](#) proposamenarekin, eta garrantzitsuena: guztion artean lortuko dugula.

Con motivo de la situación excepcional en la que nos encontramos inmersos, debido a la pandemia provocada por el Coronavirus (COVID- 19), y en vista de la aprobación del **Decreto 463/ 2020**, de 14 de marzo en el que se declaró el Estado de Alarma, para la gestión de la crisis sanitaria ocasionada por dicho virus, y cuya última prórroga de dicho decreto ha sido hasta el 26 de abril de 2020, y siendo conscientes de que se prevé alguna prórroga más del Estado de Alarma.

Por consiguiente, el Ayuntamiento de Valle de Trápaga-Trapagaran, a través del Área de Cultura, ha recibido la comunicación de la Comisión de Fiestas del Barrio de Zaballa, de proceder a la suspensión de las Fiestas de Zaballa 2020, que estaban programadas para los días 30 de abril, 1, 2 y 3 de mayo.

Así mismo, el Ayuntamiento muestra su más profunda tristeza por esta suspensión, pero lo primero para este consistorio es el bienestar de nuestras vecinas y vecinos, y en futuros años podremos disfrutar a lo grande de dicha celebración tan especial para todos y todas las Trapagangarras.

También, nos gustaría agradecer todo el esfuerzo que estáis haciendo en estos momentos. Además, de señalaros nuestro compromiso como institución [#yomequedoencasa](#). Y lo más importante, entre todos y todas, lo conseguiremos.

Trapagaranen, 2020ko apirilaren 16an.

Kultur arloa